

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales

1.- Estatuarentzako Kupoa

Euskadiko Kupoa 2007-2011 bost urteko epealdirako ezarritako metodologia onetsi duen urriaren 25eko 29/2007 Legea dela bide, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30ean hartutako erabakiaren arabera eta hura aplikatzeko, behin-behineko kupo likidoaren kalkulua lortu da 2015erako, guztira 1.217.382.760 eurokoa.

Esandako kupoa foru aldundien artean banatu behar da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2014ko urriaren 13an onetsitako ezarpen-indizeen arabera. Honako hauek izan ziren: Arabarako %16,43, Gipuzkoarako %33,03 eta Bizkairako %50,54.

Bizkaiari 2015erako dagokion koefizientea erabiliz, Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuari 615.265.247 euro ordaindu behar dizkio, 2015erako behin-behineko kupo likidoari dagokion kopurua.

Kupoaren heren bana ordaintzen da maiatzean, irailean eta abenduan, eta Kupoari buruzko Legearen 6.2. artikuluko konpentsazioak eginda, kupo likidoa dela-eta Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoa 193.608.123 eurokoa izan zen 2015eko maiatzeko lehen epean.

EAEko Kupoa 2007-2011ko bost urteko epealdian ezartzeko metodologiaren Lehen Xedapen Gehigarrian aipatzen den 2015ko ekitaldirako behin-behineko finantza konpentsazioaren balorazioak, guztira, 79.871.440 euroko zenbateko orokorra du EAEren alde. Maiatzera bitarteko epean 13.455.675 eurokoa izan zen Bizkaiari zegokion zenbatekoa.

Bestalde, 2007ko uztailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 4. erabakia betez (Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuaren finantziazioan Hezkuntzaren Lege Organikoa garatzeko eta Enplegurako Politika Aktiboak lekualdatzeko izandako parte-harteari buruzkoak dena), Foru Aldundiak 45.507.107 euroko kenkaria

1.- Cupo al Estado

En virtud de la Ley 29/2007, de 25 de octubre, por la que se aprueba la Metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2007-2011, según acuerdo de la Comisión Mixta de Concierto Económico de 30 de julio de 2007, y en aplicación de la misma, se ha llegado al cálculo del Cupo Líquido Provisional para 2015 por importe de 1.217.382.760 euros.

El Cupo citado se paga por las Diputaciones Forales de acuerdo a los coeficientes de aportación, aprobados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas el 13 de octubre de 2014, que resultaron ser el 16,43% para Araba, 33,03% para Gipuzkoa y 50,54% para Bizkaia.

Aplicando el coeficiente correspondiente a Bizkaia para 2015, a la Diputación Foral le corresponde un Cupo Líquido Provisional 2015 a pagar al Estado de 615.265.247 euros.

Abonándose el Cupo por terceras partes, en los meses de mayo, septiembre y diciembre, y una vez efectuadas las compensaciones del art.6.2 de la Ley de Cupo, el importe a satisfacer al Estado por Cupo Líquido, en el primer plazo, de mayo de 2015, fue de 193.608.123 euros.

La valoración de las compensaciones financieras provisionales aprobada para el ejercicio 2015, a las que se refiere la Disposición Adicional Primera de la metodología de señalamiento del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2007-2011, se fija en un importe global de 79.871.440 euros a favor del País Vasco, siendo el importe correspondiente a Bizkaia en el plazo de mayo de 13.455.675 euros.

Por otro lado, en cumplimiento del Acuerdo Cuarto de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 30 de julio de 2007, sobre la participación del País Vasco en la financiación del Estado para el Desarrollo de la Ley Orgánica de Educación, así como por el traspaso de las Políticas Activas de Empleo, la Diputación Foral realiza deducciones



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales

egin zuen maiatzera bitarteko epean.

en el plazo de mayo por importe de 45.507.107 euros.

Sektore elektrikoari dagokion 1.409.786 euroko behin-behineko konpentsazioa ere aplikatu ostean, maiatzera bitarteko epean hori ere, estatuari epe horretan sartu beharreko kupoa 136.055.127 eurokoa izan da. Data horretan oraindik ez da kobratu Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren babeserako gutxieneko mailaren finantzaketan izandako partaidetzari zegokion sarrera, zehazki 2015eko urtariletik martxora bitarteko tarteari zegokiona. 7.241.110 eurokoa litzateke eta likidazioa egin da zenbateko horrengatik. Era berean, 2014ko AAMAESen gutxieneko mailaren likidazioa egin da, 1.454.267 euroan, eta hori ere ez da oraindik kobratu.

Aplicada asimismo la compensación provisional correspondiente al sector eléctrico en el plazo de mayo de 2015, por importe de 1.409.786 euros, resulta finalmente un Cupo a ingresar al Estado en dicho plazo, de 136.055.127 euros. Queda pendiente de cobro a dicha fecha el ingreso correspondiente a la participación en la financiación del nivel mínimo de Protección del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD) del periodo enero-marzo 2015, por importe de 7.241.110 euros, practicándose liquidación por dicho importe. Igualmente, se procede respecto al importe correspondiente al SAAD nivel mínimo liquidación 2014, que asciende a 1.454.267 euros, quedando también pendiente de cobro.

29/2007 Legeari jarraiki, 2014ko kupoareen likidazioa kalkulatu ahal izan da eta emaitzak erakusten duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak 23.216.646 euroko saldoa kobratu behar du. Era berean, 2013 ekitaldiko Kupoareen Likidazioa aldatu da eta Bizkaiak 2.044.414 euro kobratu beharko ditu. Modu berdintsuan egin dira 2014ko konpentsazio finantzarioen likidazioak, fabrikazioaren gaineko zerga bereziak ituntzeagatik ezarritakoak. Emaitzaren arabera, Bizkaiak 6.841.413 euro ordaindu behar dizkio estatuari. 2014ko ekitaldiaren likidazioa ere egin da, sektore elektrikoaren konpentsaziogatik, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 3.759.051 euro ordaindu beharko ditu.

Del mismo modo, de acuerdo a la Ley 29/2007, se procede a la Liquidación del Cupo del ejercicio 2014, cuyo resultado arroja un saldo a cobrar por la Diputación Foral de Bizkaia de 23.216.646 euros, produciéndose asimismo una modificación de la Liquidación del Cupo del ejercicio 2013, con un resultado a cobrar por Bizkaia de 2.044.414 euros. Igualmente se efectúan las liquidaciones de las compensaciones financieras para 2014, establecidas por razón de la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación, con un resultado para Bizkaia a pagar al Estado de 6.841.413 euros, y también la liquidación por la compensación del sector eléctrico del ejercicio 2014 por un importe a cobrar por la Diputación Foral de Bizkaia de 3.759.051 euros.

Kompentsazio horiek aplikatu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio 2014ko ekitaldiaren kupoareen likidazioa kobratzea, 20.134.284 euroan. Beste 2.044.414 euro ere kobratu behar ditu, 2013ko kupoa erregularizatu izanagatik. Beraz, 2015eko kupoareen lehenengo epealdiari dagokion zenbatekoari zifra hori batuta, 2015eko maiatzean 113.876.429 euro ordaindu behar dira guztira.

Una vez realizadas dichas compensaciones, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia un cobro, en concepto de Liquidación de Cupo del ejercicio 2014, por importe de 20.134.284 euros y otro cobro de 2.044.414 euros en concepto de regularización del Cupo 2013. Ello, junto con el importe correspondiente al primer plazo del Cupo 2015, hace un total a pagar en mayo de 2015 de 113.876.429 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales

Hala eta guztiz ere, kupoa kalkulatzeari dagokienez Estatuarekiko desadostasunen ondorioz, Estatuari lehenengo epean, 2015eko maiatzean, egin beharreko ordainketa atxiki egin da, eta kobrantza bat egiten da Estatuak BEZaren doikuntza dela-eta zuen zorrari dagokion konpentsazioarengatik.

Bestalde, 2015eko irailaren 30ean, eta kupoa ordaintzeko 2. epearekin batera, foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzarekin batera, honakoa erabaki zuten: Kupoaren epe horren zenbateko osoa, hots, 136.055.127 euro, atxikitzea, estatuak aldeztu aurretik gauzatutako atxikipeak konpentsatzeko, BEZaren doikuntzaren eta AAMAEsen gutxieneko mailaren ziozko sarrerei dagozkienak.

Halaber, Estatuak egin behar duen sarreran jaso gabe dagoen zenbatekoaren likidazioa egin da, 2015. ekitaldiko AAMAEsek bermatzen duen babesaren gutxieneko mailaren apirila-uztaila aldiaren finantziarioari dagokiona. Munta hori 9.145.833 eurokoa da.

Kupoaren hirugarren epearen (2015eko abenduakoa) emaitza da Estatuari 136.055.127 euro ordaindu behar zaizkiola. Ordainketa horren ondorioz Foru Aldundiak zenbateko osoagatik atxikipea egin du, oraindik ere Estatuak ordaindu ez duen hirugarren eta laugarren hiru hilabete BEZaren doikuntzari aplikatuz.

Estatuak ingresatu gabe zuen muntaren likidazioa egin zen, hau da, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak bermatzen duen babesaren gutxieneko mailaren 2015eko ekitaldiko abuztua-azaroa tartean finantziarioari dagokiona, 9.690.243 euro egiten du.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoarentzako finantza ekarpenak.

Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen Finantziarioari egin beharreko finantza-ekarpenak ezartzeko eta baliabideak

Sin embargo, como consecuencia de las discrepancias con el Estado en relación al cálculo del Cupo, la Diputación Foral de Bizkaia no hizo efectivo el importe a ingresar al Estado en el primer plazo de mayo de 2015, que se retuvo, efectuándose un cobro por compensación correspondiente a la deuda que el Estado tenía por el Ajuste IVA.

Por otra parte, con fecha 30 de septiembre de 2015, y coincidiendo con el pago del 2º plazo de Cupo, la Diputación Foral de Bizkaia acuerda retener el importe total de dicho plazo de Cupo, que asciende a 136.055.127 euros, para compensar las retenciones previamente efectuadas por el Estado correspondientes a los ingresos por Ajuste IVA y SAAD nivel mínimo.

Asimismo, se practica liquidación por el importe pendiente de ingreso por parte del Estado, correspondiente a la financiación del nivel mínimo de protección garantizado del SAAD del periodo abril-julio del ejercicio 2015, que asciende a 9.145.833 euros.

El tercer plazo de Cupo, de diciembre de 2015, arroja un resultado a pagar al Estado de 136.055.127 euros. La Diputación Foral realiza una retención por el importe total, aplicándolo al ajuste por el IVA del tercer y cuarto trimestres, todavía pendiente de pago por parte del Estado.

Se practica liquidación por el importe pendiente de ingreso por parte del Estado, correspondiente a la financiación del nivel mínimo de protección garantizado del SAAD del periodo agosto-noviembre del ejercicio 2015, que asciende a 9.690.243 euros.

2.- Aportaciones financieras a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con la Ley 2/2007, de 23 de marzo, por la que se aprueba la Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales

banatzeko metodologia onetsi duen martxoaren 23ko 2/2007 Legearekin bat etorri (2007-2011ko epealdian aplikatu beharrekoa) eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2014ko urriaren 13an hartutako erabakiak betez, foru aldundiek 2015eko ekitaldirako eginiko finantza-ekarpenen zifra osoa 8.737.931.123 eurokoa izan da. Ekitaldi bererako koefiziente horizontalen kalkulua, berriz, %16,43koa izan da Araban, %50,54koa Bizkaian eta %33,03koa Gipuzkoan.

2/2007 Legearen III. Kapituluko 19 eta 20. artikuluetan, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak doikuntzaren funts orokorra ezartzen da. Ekitaldirako onetsitako tributu hitzartuen ziozko zerga-bilketaren aurreikuspenak ikusita, 2015erako doikuntzaren funts orokorraren behin-behineko zuzkidura, guztira, 118.363.325 eurokoa izan da.

2014ko urriaren 13ko H.D.E.K.ren erabakiak direla bide, eta 2007ko urtarrilaren 18ko H.D.E.K.n onetsitako egutegiarekin bat etorri, ondoko ordainketa egutegi honen arabera gauzatu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-ekarpenen lehen epea, guztira, 736.025.064 eurokoa: otsailaren 5ean 426.025.064 euro ordaindu ziren; eta 310.000.000 euroko gainerako zenbatekoa 2015eko otsailaren 16ra arte atzeratu zen.

2015eko otsailaren 15ean Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko ekitaldiko Ekarpene Finantzarioen eta Doikuntza Funts Orokorraren likidazioagatik jaso behar zuen diru-sarrera garbia konpentsatu zen, guztira 30.011.838 euro (2014ko Doikuntza Funts Orokorraren likidazioaren harira, Bizkaia 5.640.989 euro ordaintzea zegokion), ekarpenen ordainketa egiteko lehenengo epea atzeratuz, 310.000.000 eurokoa zena. Horrenbestez, otsailaren 16an ordaindu zen atzerapen hori, hau da, 279.988.162 euro.

2015eko ekitaldiko ekarpenen bigarren epea, zeina lehenengoaren zenbateko berekoa baitzen,

las Aportaciones financieras de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2007-2011, y en cumplimiento de los acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas (CVFP) de 13 de octubre de 2014 la cifra global de las Aportaciones financieras de las Diputaciones Forales para el ejercicio 2015 ha sido de 8.737.931.123 euros, y el cálculo de los coeficientes horizontales para el mismo ejercicio, de 16,43% para Araba, 50,54% para Bizkaia y 33,03% para Gipuzkoa.

La Ley 2/2007, en su Capítulo III, artículos 19 y 20, define y regula el Fondo General de Ajuste. Su dotación provisional para el año 2015, a la vista de las previsiones de recaudación por tributos concertados aprobadas para el mismo ejercicio, es de 118.363.325 euros.

En virtud de los acuerdos del CVFP de 13 de octubre de 2014, y de acuerdo al calendario aprobado en el CVFP de 18 de enero de 2007, el primer plazo de las Aportaciones Financieras por la Diputación Foral de Bizkaia, por importe de 736.025.064 euros, se sometió al siguiente calendario de pagos: el día 5 de febrero se abonaron 426.025.064 euros y el importe restante de 310.000.000 euros se aplazó hasta el 16 de febrero de 2015.

El 15 de febrero de 2015 se compensó el ingreso neto a recibir por parte de la Diputación Foral de Bizkaia en concepto de liquidación de las Aportaciones Financieras y del Fondo General de Ajuste del ejercicio 2014 por un importe total de 30.011.838 euros (correspondiendo a la liquidación del Fondo General de Ajuste de 2014 un importe a pagar por Bizkaia de 5.640.989 euros) con el aplazamiento pendiente de pago del primer plazo de aportaciones, que importaba 310.000.00 euros, pagándose en efectivo el 16 de febrero los restantes 279.988.162 euros.

El segundo plazo de las Aportaciones del ejercicio 2015, de igual importe que el primero,



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales
736.025.064 eurokoa, ordainketen egutegi honi jarraiki egin zen: apirilaren 27an 486.025.064 euro ordaindu ziren, eta gainerakoaren ordainketa, 250.000.000 euro, 2014ko maiatzaren 4era arte atzeratu zen.		736.025.064 euros, se hizo efectivo con el siguiente calendario de pagos: el día 27 de abril se abonaron 486.025.064 euros; y el importe restante de 250.000.000 euros se aplazó hasta el 4 de mayo de 2015.
Hirugarren eperako, ekainaren 27koa, Estatuari zuzenduriko 2014 Kupoa likidatu eta 2015erako Kupo Likidoaren lehen epea ordaindu ondoren, berriro kalkulatu ziren Ekarpinak (martxoaren 23ko 2/2007 Legean xedaturikoaren arabera). Emaizta 739.033.804 eurokoa izan zen, eta horietatik 390.000.000 euro uztailaren 1era arte eta 110.000.000 euroak 2015eko abuztuaren 3ra arte atzeratu ziren.		Para el tercer plazo, del 27 de junio, una vez liquidado el Cupo al Estado del 2014 y pagado el primer plazo del Cupo Líquido para 2015, se efectuó un recálculo de las Aportaciones (según lo dispuesto en la Ley 2/2007, de 23 de marzo) con un resultado de 739.033.804 euros, de los que se aplazaron 390.000.000 euros hasta el 1 de julio y 110.000.000 euros hasta el 3 de agosto de 2015.
Aipaturiko hirugarren epearekin bat etorriz, eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2014eko urriaren 13ko erabakiak betez, Foru Aldundiak Euskal Herriko Ogasun Orokorrean 11.948.212 euro sartu zituen 2015rako Egokitzapenerako Funts Orokorren bi herenak ordaintzeko.		Coincidiendo con el mencionado tercer plazo, y en cumplimiento de los acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 13 de octubre de 2014, la Diputación Foral ingresó en la Hacienda General del País Vasco 11.948.212 euros en pago de las dos terceras partes del Fondo General de Ajuste para 2015.
Laugarren ekarpena, aurreko epeak izan zuen zenbateko bera izan zuena, hau da, 739.033.804 euro, honako ordainketen egutegiaren arabera ordaindu zen: uztailaren 30ean 13.552.945 euro ordaindu ziren, abuztuaren 15ean 575.480.859 euro eta gainerakoa, 150.000.000 euro, urriaren 1ean.		La cuarta aportación, de igual importe que el plazo anterior, 739.033.804 euros, se hizo efectiva con el siguiente calendario de pagos: 13.552.945 euros se pagaron el 30 de julio, 575.480.859 euros el 15 de agosto y el importe restante, 150.000.000 euros, con fecha 1 de octubre.
Ekarpenen bosgarren ordainketa, 739.033.804 eurokoa, zati batean ordaindu zen urriaren 15ean (529.033.804 euro ordaindu ziren) eta gainerakoa azaroaren 2an ordaindu zen (210.000.000 euro).		El quinto pago de las aportaciones por importe de 739.033.804 euros, se hizo efectivo parcialmente por importe de 529.033.804 euros el día 15 de octubre, abonándose el importe restante, de 210.000.000 euros, con fecha 2 de noviembre.
Ekarpenen seigarren eta azken epean, azaroaren 15ekoan, likidazio aurreko doikuntza bat egin zen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2014ko urriaren 13an Kontzertu Ekonomikoa kudeatzetik heldu diren diru-sarreraren likidazioari buruz onetsitako aurreikuspenen oinarrian, 2/2007 Legeko 23. artikuluari jarraituz; horren emaitza da Bizkaiko Foru Aldundiak, epe horretan, 652.968.967 euroko saldoa ordaindu behar duela.		En el sexto y último plazo de aportaciones, de fecha 15 de noviembre, se procedió a realizar un ajuste preliquidatorio sobre la base de las previsiones de liquidación de los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico aprobadas por el CVFP de 13 de octubre de 2014, de conformidad con el artículo 23 de la Ley 2/2007, resultando un saldo a pagar por la Diputación Foral de Bizkaia en el citado plazo de 652.968.967 euros.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales

Zenbateko horretatik 200.000.000 euro geroratu ziren, 2015eko abenduaren 1era arte, 80.000.000 euro abenduaren 15era arte eta 45.000.000 euro 2016ko otsailaren 15era arte.

De dicho importe se aplazaron 200.000.000 euros hasta el 1 de diciembre de 2015, 80.000.000 euros hasta el 15 de diciembre y 45.000.000 euros hasta el 15 de febrero de 2016.

3.- HKEKri lotutako zerga itunduen bilketaren gaineko informazioa. BEZaren eta zerga berezien bilketagatik egin beharreko doikuntzak.

3.- Información sobre recaudación de tributos concertados afectos al CVFP. Ajustes a realizar por recaudación de IVA e IIEE.

2007-2011ko epealdian aplikatu beharreko martxoaren 23ko 2/2007 Legearekin bat etorritz, banaketari lotutako tributu hitzartuen zioz bildutako tributu estatistikak igorri dizkio Bizkaiko Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarrera bidal ditzan exijituriko epeen barruan. 2014ko abenduko eta 2015eko urtarril, otsail, martxo, apiril, maiatz, ekain, uztail, abuztu, irail, urri eta azaroko tributuak dira.

De conformidad con la Ley 2/2007, de 23 de marzo, aplicable al periodo 2007-2011, la Diputación Foral de Bizkaia ha enviado al Gobierno Vasco para su remisión al Parlamento las Estadísticas Tributarias por recaudación de tributos concertados sujetos a reparto de los meses de diciembre de 2014, enero, febrero, marzo, abril, mayo, junio, julio, agosto, septiembre, octubre y noviembre de 2015, dentro de los plazos exigidos.

Era berean, horren berri eman zaie bi foru aldundiei eta Estatuaren administrazio orokorrari.

Igualmente, se ha informado a las otras dos Diputaciones Forales y a la Administración General del Estado.

Modu berean, Foru Aldundiak 2015 ekitaldiaren banaketari eragiten dion eskudiruzko sarreraz desberdinak diren ondasun eta eskubideetan egindako zerga-bilketaren berri eman du.

Del mismo modo, la Diputación Foral ha procedido a informar de la recaudación tributaria en bienes y derechos distintos del ingreso en efectivo afecta a reparto del ejercicio 2015.

Halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren, Elektrizitatearen gaineko Zergaren, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien, sektore elektrikoaren gaineko zergen eta Hidrokarburo jakin batzuen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren bilketari buruzko ziurtagiriak bidali zaizkio Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Politikaren Sailburuordetzari, hiru hilekoko mugaegunetan zerga horiei dagozkien doikuntzak kalkula ditzan Estatuako Administrazioarekin zein Foru Aldundiekin (apiril, uztail, urri eta abenduaren 30a) eta urteko likidazioekin.

Asimismo, han sido remitidas a la Viceconsejería de Hacienda y Política Financiera del Gobierno Vasco las certificaciones de recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido, Electricidad, Impuestos Especiales de Fabricación, Impuestos sobre el sector eléctrico y Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, bien para realizar con el Estado bien entre las Diputaciones Forales los cálculos de los ajustes correspondientes a dichos impuestos en sus vencimientos trimestrales y, en su caso, en la liquidación anual (30 de abril, julio, octubre y diciembre).

Estatuarekin egin beharreko doikuntzei dagokienez, 2015ean estatuaren alde sortutako zenbatekoa 611.477.028 eurokoa izan da (156 milioi lehenengo hiruhilekoan, 100 milioi bigarreanean, 112 milioi hirugarrenean eta 305

En cuanto a los ajustes con el Estado, su importe devengado en 2015, a favor del Estado, ha sido 611.477.028 euros (156 millones en el primer trimestre, 100 millones en el segundo, 112 millones en el tercero y 305 en el cuarto, además



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales

laugarrenean, 2014 ekitaldiko likidazioko 61 milioi euroez gain, kasu horretan Bizkaiko Foru Aldundiaren alde). Hala ere, kupoa kalkulatzeko estatuarekin izandako desadostasunetatik eratorriak diren erakundeen arteko fluxuetan egindako konpentsazioen ondorioz, 552.284.761 euro kobratu dira 2015ean.

Foru Aldundien Doikuntza modura, Bizkaiko Foru Aldundiak 1.008.968.002 euro ordaindu dizkio Eusko Jaurlaritzako Diruzaintza Nagusiari (275 milioi lehenengo hiruhilekoan, beste horrenbeste bigarreanean, 297 milioi hirugarrenean eta amaitzeko 162 milioi euro).

Ekonomi Itunaren 33. artikuluari eta Kupoaren Batzorde Mistoak 1999ko uztailaren 14an hartutako hirugarren erabakiari jarraituz, sarrera jaso zuen administrazioa ez den beste batek Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien zioz ordaindutako kuoten itzulketak erregularizatu dira. 2014ko bigarren seihilekoari 7.598 euro dagozkio eta 2015eko lehenengo seihilekoari 7.847 euro, biak Bizkaiko Foru Aldundiaren alde.

4.- Lurralde Historikoaren udal informazioa.

2015eko otsailaren 24ko Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez, Udal Finantziaraziorako Foru Funttsaren (Udalkutxa) 2014ko ekitaldiko Likidazioa onetsi da. Ondorioz, 20.930.494 euro Bizkaiko Foru Aldundiaren aldekoak dira, hasiera baten kalkulaturako 773.573.461 euroko aurrekontuaren eta benetan izandako 752.642.967 euroko partaidetzaren arteko desberdintasun modura.

Ekarpenei buruzko 2/2007 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Lurralde Historikoetako Foru Organoek urtero ezarriko dute Toki Erakundeek itundutako sarreretan izango duten partaidetza. 2015erako 811.880.823 eurokoa izango dela kalkulatu da. Toki erakundeei jakinarazitako kopuruak likidazioaren aurreikuspena egiteko dira (HDEK-k Ekonomi Itunaren sarrerak kontuan hartuta

de los 61 millones de la liquidación del ejercicio 2014, favorables en este caso a la Diputación Foral de Bizkaia). No obstante, las compensaciones en los flujos interinstitucionales derivadas de las discrepancias con el Estado respecto al cálculo del Cupo, han dado lugar a un cobro total de 552.284.761 euros en 2015.

En concepto de Ajustes Diputaciones Forales, la Diputación Foral de Bizkaia ha abonado a la Tesorería General del Gobierno Vasco un total de 1.008.968.002 euros (275 millones en el primer trimestre, otro tanto en el segundo, 297 millones en el tercero y finalmente 162 millones de euros).

De conformidad con el art. 33 del Concierto Económico y el acuerdo tercero de la Comisión Mixta de Cupo de 14 de julio de 1999, se han regularizado las devoluciones de cuotas satisfechas por IIEE de Fabricación por Administración distinta a la que recibió el ingreso, correspondiendo al segundo semestre de 2014 un importe de 7.598 euros y 7.847 euros al primer semestre de 2015; ambos importes favorables a la Diputación Foral de Bizkaia.

4.- Información municipal del Territorio Histórico.

Mediante acuerdo de Consejo de Gobierno de 24 de febrero de 2015 se aprueba la Liquidación del Fondo Foral de Financiación Municipal (Udalkutxa) del ejercicio 2014, resultando un saldo a favor de la Diputación Foral de Bizkaia de 20.930.494 euros, como diferencia entre el importe presupuestado inicialmente de 773.573.461 euros y la participación real de 752.642.967 euros.

Según establece la disposición adicional cuarta de la Ley 2/2007, de Aportaciones, los Órganos Forales de los Territorios Históricos establecerán anualmente la participación de los Entes Locales en los ingresos concertados, que para 2015 tiene un importe presupuestado de 811.880.823 euros. Los importes resultantes puestos a disposición de los entes locales son objeto de una previsión de liquidación (derivada de las previsiones de



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
21. Erakundeen Arteko Konpromisoak	00. Erakundeen Arteko Konpromisoak	910.101 Erakundeen Arteko Konpromisoak
21. Compromisos Institucionales	00. Compromisos Institucionales	910.101 Compromisos Institucionales

egindako likidazioaren aurreikuspenetatik eratorria). Urrian horren berri eman zitzaien udalei, Finantzen Lurralde Kontseiluaren bidez, eta ekitaldia bukatu osteko lehenengo hiruhilekoan likidazioa gauzatu beharko dute, ekarpenen likidazioa gauzatu ondoren (Toki ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 41.4 eta 41.5 artikulua).

Aurreko ekitaldietan moduan, Udal Ahalegin Fiskalen 2013. urteko Ziurtagirien ereduak egin dira eta Lurralde Historikoko udal guztiei bidali zaizkie, zertarako-eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak (ondoren igorriko zaizkio Ministerio horri) Bizkaiko udalerriek 2014. urteko ekitaldiko estatuko tributu ez hitzartuetan duten partaidetzaren banaketa zehaztu ahal izateko. 2015ean Foru Aldundiak milioi eta erdi banatu zuen, Ekonomi Itunaren 51. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Foru Aldundiak, haren mendeko udalerrien gainean duen finantza tutoretzarako ahalmena erabiliz, baliabide maila jakin bat bermatu beharko du udalerrri guztietan. Maila hori ez da izango, inola ere, araubide erkidearen legeria aplikatuta Lurraldeari dagokiona baino txikiagoa, betiere Foru Aldundiak egokitzen hartutako irizpideak erabiliz kopuru horiek banatzeko duen ahalmenari kalterik egin barik (Bigarren xedapen gehigarria, LHL).

liquidación del CVFP en relación a los ingresos del Concierto Económico) puesta en conocimiento de los Ayuntamientos en el mes de octubre, a través del Consejo Territorial de Finanzas, y están sujetos a liquidación una vez finalizado el ejercicio, en el primer trimestre siguiente, una vez realizada la liquidación de las Aportaciones (artículos 41.4 y 41.5, Norma Foral 9/2005 de Haciendas Locales).

Como en ejercicios anteriores, se han elaborado los modelos de Certificaciones del Esfuerzo Fiscal Municipal 2013 y remitido a todos los Ayuntamientos del Territorio Histórico, con el fin de que desde el Ministerio de Economía y Hacienda, a quien se remitirán posteriormente, puedan proceder a la determinación de la participación de los municipios de Bizkaia en los tributos del Estado No Concertados; un millón y medio distribuido por la Diputación Foral en 2015 conforme al artículo 51 del Concierto Económico.

La Diputación Foral, en el ejercicio de las facultades de tutela financiera que legalmente le corresponden sobre sus municipios, deberá garantizar, para el conjunto de los mismos, un nivel de recursos que en ningún caso será inferior al que correspondiere al territorio por aplicación de la legislación de régimen común, sin perjuicio de la facultad de la Diputación Foral para efectuar la distribución de dichas cantidades con los criterios que estime convenientes (Disposición adicional segunda, LTH).

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Saila: 21 ERAKUNDEEN KONPROMISOAK
Departamento: COMPROMISOS INSTITUCIONALES
Egitaraua: 910101 ERAKUNDEEN KONPROMISOAK
Programa: COMPROMISOS INSTITUCIONALES

HEL OBJ	EKI ACC	ADI IND	DESKRIPZIOA DESCRIPCIÓN	ZENBATEKOA/CUANTIFICACION		EGITEA REALIZACIONES
				HASIERA/INICIAL	ORAIN/ACTUAL	
1	1		ERAKUNDEEN KONPROMISOAK ZEHAZTU ETA ORDAINTZEA DETERMINACIÓN Y PAGO DE LOS COMPROMISOS INSTITUCIONALES			
			ERAKUNDEEN KONPROMISOAK BERRIKUSTEA ETA KUANTIFIKATZEA REVISIÓN Y CUANTIFICACIÓN DE LOS COMPROMISOS INSTITUCIONALES			
		1	Estatuari ordaindu beharreko kupoa Determinación del Cupo al Estado	4	4	3
		2	Ekarpenak zehaztea Determinación de las Aportaciones	8	8	7
		3	Doikuntzak aurreikustea (Estatua eta foru aldundiak), parte hartzea zerga itundu gabeeetan eta abar. Previsión de ajustes (Estado y DD.FF.), participación en ingresos no concertados. Etc.	8	8	8
	2		ESTATUAREKIKO HARREMANEN ONDORIOZKO ORDAINKETAK EGIN ETA KONTABILIZATZEA REALIZACIÓN Y CONTABILIZACIÓN DE LOS PAGOS DERIVADOS DE LAS RELACIONES CON EL ESTADO			
		1	Kupoaren ordainketa proposamenen kopurua Número de propuestas de pago de Cupo	3	3	3
		2	BEZ eta zerga berezien bidezko diru-bilketari doikuntzak ordaintzeko proposamen kopurua Número de propuestas de pago de Ajustes a la recaudación por IVA e IIEE	8	8	8
	3		FINANTZAZIOAREN BARNE SISTEMATIK ONDORIOZKO ORDAINKETAK EGIN ETA KONTABILIZATZEA REALIZACIÓN Y CONTABILIZACIÓN DE LOS PAGOS DERIVADOS DEL SISTEMA INTERNO DE FINANCIACIÓN			
		1	Autonomia Erkidegoari ekarpenak ordaintzeko proposamen kopurua Número de propuestas de pago de Aportaciones a la Comunidad Autónoma	7	7	7
		2	BEZ eta zerga berezien bidezko diru-bilketari doikuntzak lurralde historikoein ordaintzeko proposamen kopurua Número de propuestas de pago de Ajustes a la recaudación por IVA e IIEE con los TTHH	8	8	8